



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko abenduaren 12a

48. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, Nafarroako Gobernuaren erronkei eta politika orokorrari buruzkoa, eta, oro har, etxebizitza duina izateko eskubideari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen dira hirigintza-garapen berrietan behar adina ikaspostu publiko berma ditzaten, lurzoru publikoaren lagapenaren bidez, titulartasun eta kudeaketa publikoko ikastetxeak sortu eta irekitzeko. Ezquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte-erakunde eta -eragileekin jorra dezan 209/1991 Foru Dekretua aldatzeko egindako zirriborroa. Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Ezquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lantalde misto bat sor dezan enpresa eta pertsona ekintzaileei beren jarduera ezartzeko eta garatzeko erraztasunak emanen dizkieten neurriak diseinatze aldera. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Ezquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 10/2011 Foru Legea gaurkotu dezan eta Nafarroako Gazteriari buruzko III. Plana ekarriko duen estrategia bat idatz dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Ezquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Minbiziari aurre egiteko Arreta Plan Estrategiko bat taxutu dezan. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat aurkez dezan gure erki-degoko hiltegiatan telebista bidezko zirkuitu itxiak nahitaez daitezen. Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Podemos-Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkarteak eta Ezquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (12. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Prozedura Kriminalaren Legearen 324. artikularen aplikazioa bertan behera utz dezan. Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztu du (13. or.).
- Alzheimerraren Plan Nazionalaren aldeko adierazpen instituzionala. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baititu talde parlamentarioek Eusko Legebiltzarrean izendatutako mandatariek aurkeztutako dokumentuak, zeinetan Nafarroa aipatzen baita, Konstituzioak ezarritakoaz harago, euskal autogobernua gaurkotzeko ponentzian. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak zeharo errefusatzen baitu gorroto-diskurtso oro, eta berariaz errefusatzen ditu bakarrik dauden neska-mutiko edo nerabe migratzaileak kriminalizatzea bilatzen duten diskurtso guztiak. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aldeztu egiten baitu bere Konstituzioan ezarritako egoeretara mugatzea Guatemalako Errepublikan ezarritako Sitio Egoera. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu egiten baitu estatuan nahiz Europan egiten den migrazio politika elkartasunean eta giza eskubideekiko errespetuan oinarrituta egitea. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Corellan, Aita Pasiotarren antzinako egoitzan, CLECE enpresak zahar-etxe bat eraikitzeari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (18. or.).
- Galdera, landa ingurunean zahartzea dela-eta arretarako eredu pilotu bat diseinatzeari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (19. or.).
- Galdera, Nafarroako lurraldean “txerri-basurdea” deitutakoak duen egoerari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (19. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Mahaiaren 2018ko abenduaren 19ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia aldatzea (20. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, Nafarroako Gobernuaren erronkei eta politika orokorrari buruzkoa, eta, oro har, etxebizitza duina izateko eskubideari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako Gobernuaren erronkei eta politika orokorrari buruzkoa, eta, oro har, etxebizitza duina izateko eskubideari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernuaren erronkei eta politika orokorrari eta, oro har, etxebizitza duina izateko eskubideari buruzko interpelazioa.

Iruñean, 2019ko abenduaren 2an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen dira hirigintza-garapen berrietan behar adina ikaspostu publiko berma ditzaten, lurzoru publikoaren lagapenaren bidez, titulartasun eta kudeaketa publikoko ikastetxeak sortu eta irekitzeko.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen baitira hirigintza-garapen berrietan behar adina ikaspostu publiko berma ditzaten, lurzoru publikoaren lagapenaren bidez, titulartasun eta kudeaketa publikoko ikastetxeak sortu eta irekitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoaren eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Espainiako Konstituzioak 27. artikuluan dio denek dutela hezkuntzarako eskubidea eta oinarritzko hezkuntza nahitaezkoa eta doakoa dela. Halaber, 5. puntuan ezartzen duenez “botere publikoek bermatzen dute guztien hezkuntza-eskubidea; horretarako, irakaskuntzaren programazio orokorraz baliatuko dira, dagokien sektore guztien benetako parte-hartzearekin eta ikastetxeak sortuz”.

Halatan, Konstituzioak agintzen duenaren arabera, botere publikoei dagokie denei bermatzea hezkuntzarako eskubidea, hezkuntza komunitatearen parte-hartzea duen hezkuntzaren planifikazioaz ez ezik, ikastetxeak ere sortuz, aipatu eskubidea egingarri bihurtuko baitute.

Halaber, Espainiako Konstituzioaren 27.1 artikuluan “irakaskuntzarako eskubidea” jasotzen da

eta pertsona fisiko eta juridikoei aitortzen zaie “ikastetxeak sortzeko askatasuna; betiere, Konstituzioaren printzipioak errespetatuz” (27.6). Era horretan aukera uzten da ikastetxe pribatuak sortzeko, kontuan hartuta Estatu mailako araudi bat, haien jarduketak aitortu eta homologatzeari begira. Baina ez gure Konstituzioan, ez zuzenbide konparatuan, inolaz ere ez da jasotzen ikastetxe pribatuak sortzea edo haien funtzionamendua funts publikoekin finantzatzeko betebeharra, eta are gutxiago familiek omen duten “ikastetxea hautatzeko eskubide” hori.

Lehenago aipatu bezala, Konstituzioak ezartzen du oinarritzko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa dela, baina ez du ezartzen Estatuak hezkuntzaren doakotasuna eskaini beharko duenik ikastetxe pribatuetan, bakar bakarrik familiek hautatzen dutelako botere publikoek sortutako ikastetxeek bestetako bat. Horrela finkatu zuen Konstituzio Auzitegiak, bere Bigarren Salak ekainaren 10ean emandako 86/1985 epaian: “...guztiz argi egonik hezkuntzarako eskubidean —doako hezkuntza oinarritzko irakaskuntzan— ez dela sartzen hezkuntzaren doakotasuna ikastetxe publikoetako edozeinetan, baliabide publikoak ez direlako bideratu behar, inolako baldintzarik gabe, lehenetasun indibidualek nahi dutenera”. Beraz, argi dago Konstituzio Auzitegiarentzat hezkuntzarako askatasunak ez dakarrela, inondik ere, ikastetxe pribatuak funts publikoekin finantzatu beharko direnik edo ikastetxea hautatzeko balizko eskubidea lehenetasun partikular bat izatetik haratago iritsiko denik.

Horiek horrela, hezkuntza publikoa, titulartasun eta kudeaketa publikokoa, ekitatearen eta kohesio sozialaren bermea da eta izan behar da; bermatu behar baitu hezkuntzarako eskubide unibertsala baliatzea berdintasun- eta demokrazia-baldintzetan, “inolako diskriminaziorik gabe arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein tasun edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta” (EK, 14. art.)

“Ikastetxea hautatzeko eskubidea”, gizarte sektore batzuek eskatzen dutena, “hautatzeko lehenetasuna” da de facto, ikerketa berriek behin eta berriro erakusten dutenez. Lehenetasuna ikastetxe jakin batzuentzat, bezero “hautatuak”

bilatzen baitituzte, klase ahalduenei ahalbidetuz urruti edukitzea ikasle migratzaileak, premia handikoak edo klase behartsukoak. Aldi berean, hautaketa horren bidez ikastetxeak ziurtatzen du ikastetxeen sailkapeneko postu onenetan egotea, bezero "hautatuek" hura eskatzen jarrai dezaten. Hautatzeko lehentasuna, halaber, zenbait familieren aldetik, beren seme-alabak ez dituztelako nahasi nahi bere klase sozialekoak ez direnkin. Era horretan "kontaktua" sozialak eta ikaskideak bilatzen dituzte, beren seme-alaben hezkuntza-emaitzak eta etorkizuneko gizarte- eta lan-egoera hobetzeko xedearekin. Ondorioa eskola-segregazioa dugu.

Botere publikoen betebeharrak soziala da hezkuntza ahalik eta onena bermatzea ikastetxe publiko guztietan, ikasleak familiaren etxetik gertuen dagoen ikastetxean eskolatzea sustatuz. Horretarako, udalerrri eta auzo guztiek eduki behar dute behar adina lanpostu publiko, hori ahalbidetzeko baliabide guztiak dituzten ikastetxeetan. Horrek, zuzenagoa eta ekitatiboagoa izateaz gain, gordeko du lehenengo eta behin hezkuntzaren eginkizun soziala. Eta hor bakarrik bermatuko da hezkuntzako sare publiko bakarraren bidez, baliabide publikoak aukera pribatuak finantzatzera desbideratu gabe.

Azken hiru hamarkadetan PSOEn eta PPren gobernuek ikastetxe itunduen sare zabal bat sustatu eta bultzatutako dute, ondorioa izanik funts publikoekin finantzatutako ikastetxeen sare bikoitz bat. Horrek lagundu du eskola segregazioa gero eta handiagoa izaten eta, gainera, nahasmendu interesatua sorrarazi du, nahasi nahi delako ikastetxe pribatuak sortzeko eskubidea familiek hautatzerakoan laguntza publikoak jasotzeko eskubidearekin, eta hori, lehenago esan den bezala, ez da inolaz ere jasotzen ez gure Konstituzioan ezta zuzenbide konparatuan ere.

Gain honi dagokionez, esan behar da Espainia anomalia bat dela Europan, proportzio handian daudelako titulartasun pribatuko ikastetxeak baina finantziario publikoak jasotzen dutenak dirulaguntza garrantzitsuen bidez (Estatuko Eskola Kontseiluaren datuen arabera eskola itunduak 6.300 milioi eurotik gora jasotzen du urtero). Mota horretako ikastetxeetan Europako hirugarren herrialdea gara, bakarrik Belgika eta Maltaren atzean. Gainerako herrialde guztietan, ELGaren datuen arabera, hezkuntza funtsean publikoa da (% 89,2 Lehen Hezkuntzan eta % 83 Bigarreanean UE-28an, Espainian % 67,3 den bitartean).

Horri gehitu behar zaio hezkuntza itunduak ikasleak bereizten dituela sexua edo beste inguruabar batzuk direla medio. Ikastetxeen sare bikoitza

urte hauetan desberdintasunerako berme bihurtu da. Ikasle migratzaile, gutxiengoetako eta hezkuntza premia handiak dituztenetatik % 82 eskola publikoan eskolatzen dira; bitartean % 18 besterik ez dute onartzen ikastetxe itunduetan, finantziario publikoak jaso arren. Halatan, gizarte-segregazioaren gorpil zoroan sartzen gara. Horrela jarraituz gero, ekitate eta kohesio sozialaren higitze handira iritsiko gara hezkuntza sare bikoitz horren bidean zehar.

Azken finean, "ikastetxea hautatzeko" sistema (ez baita eskubidea) "indartsuenaren etikaren" logika indibidualistan oinarritzen da, ez ordea aniztasunaren eta bizikidetzaren logika berdinezalean. Era horretan ulertuta, hautatzeko eskubidea ez da eskubide bat, pribilegio bat baizik, baita estrategia bat ere, hezkuntza merkatuaren pribatiziorako prozesuan kokatzeko. Ulargarria bada ere familiek lehentasunak edukitzea seme-alabak eskolatzerakoan, ezin dira parean jarri lehentasun bat adieraztea eta oinarritzeko eskubide bat, eta lehentasun partikularrak ezin dira egon hezkuntzaplantzaren edo eskolatze ekitatiboaren gainetik. Hezkuntza ondasun publiko bat den heinean ezin da planteatu negozio pribatu gisa. Estatuak onura publikoa zaindu behar du, eta ez sustatu hezkuntza-azoka bat ikastetxeen sailkapenarekin, non familiek lehiatuko duten eskaintza onena eskuratzeko, supermerkatu handi baten gisara.

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen ditu hirigintza-garapen berrietan behar adina ikaspostu publiko berma ditzaten, lurzoru publikoaren lagapenaren bidez, titulartasun eta kudeaketa publiko-ko ikastetxeak sortu eta irekitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen ditu hezkuntza itunen gaineko araudia berrikus dadin, itunek dirauten bitartean izaera guztiz subsidiarioa izan dezaten.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen ditu indarrean dauden itunak berritzeko prozesuetan ken daitezkeen justifikaziorik ez duten guztiak, ikaspostu publiko hutsak egoteagatik. Arau-mekanismoak eta protokolo administratiiboak ezarriko dira eskola publikoetan lerrorik itxi ez dadin, aldi berean irakaskuntza pribatuarekiko itunak mantentzen diren zonaldeetan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen ditu behar diren neurriak har ditzan ikastetxe publikoaren sare bakarra lortzera bideratuak, hezkuntza itunak

arian-arian kenduz erabat desagertu arte; horretarako ikastetxe pribatu itunduak era boluntario eta negoziatuan sartuko lirateke ikastetxe publikoen sarean, lurzoru publikoa okupatzen duten ikastetxe pribatu itunduetatik hasita.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen ditu, itunak kentzen diren bitartean, inolaz ere ez dadin erabil udal lurzorurik edozein motako ikastetxe pribatuentzat. Lurzoru publikoa irakaskuntza publikoarentzat bakarrik.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen ditu, hezkuntza ituna automatikoki ken dakien sexuaren arabera bereizten duten ikastetxeei, arau bereziak ezarriz ezein epaitegik ezin izan dezan babestu bereizketa edo desparekotasuna.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen ditu, ziurtatu dezaten, lehentasunarekin, ziklo guztietan kalitatea eta baliabideak dituen irakaskuntza publikoa egotea, zero urtetik aitzina beharrian guztiak beteko dituen.

8. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen ditu, eskolatzeko prozesu garden eta demokratikoak egon daitezen, gizarte eragileen parte-hartzea izanen dutena. Arau-mekanismoak eta hezkuntzako

ikuskapen sistemak ezarriko dira, Probintzia Zuzendaritzetatik aplikatuko dituztenak, eskolatzeko zentralizatuen bidez (udalerrri edo eskola barrutien arabera), zeinek antolatuko duten eskolatzeko egoki eta ekitatibo bat, arreta berezia emanez hezkuntza premia bereziak eta hezkuntza-konpentsaziokoak dituzten ikasleei, bai ikastetxe publikoetan, bai eta pribatu itunduetan ere, horiek irauten duten bitartean.

9. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen ditu, barruti bakarra ken dezan, halakorik duten herrietan, hezkuntza sistemen desparekotasunak areagotzen dituelako biztanleak biltzen dituelako ikastetxeetan estatus sozioekonomikoaren edo ikastetxearen ideologiarekin bat datozen iritzien arabera, era horretan eragotziz hezkuntzarako eskubidea berdintasun-baldintzetan baliatzea.

10. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen ditu itunak kentzen diren bitartean beharrezkoa izan dadin matrikulatzeko lehenengo aukeran ikaspostua eskatzea gutxienez ere ikastetxe publiko batean, familiek nahi dutenean beren seme-alabek ikastea finantziario publikoarekin sostengatutako sareko ikastetxe batean.

Iruñean, 2019ko azaroaren 22an

Eleduna: Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte-erakunde eta -eragileekin jorra dezan 209/1991 Foru Dekretua aldatzeko egindako zirriborroa.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gizarte-erakunde eta -eragileekin jorra dezan 209/1991 Foru Dekretua aldatzeko egindako zirriborroa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Eskubide Sozietako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Eskubide Sozietako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Esku-hartze sozialaren sektoreak ez du ia lan-araubiderik Nafarroan. Sektore horrek jarduera oso ezberdinak barne hartzen ditu: gizarte-bazterkerian edo -babesgabetasunean dauden pertsonekin edo kolektiboekin, desgaitasunen bat dutenekin, migratzaileekin edo mendekotasuna dutenekin lan egitetik hasi eta osasun, kultura, hezkuntza, lan eta gizarte esparruetaraino, halako moduan non berebiziko garrantzia baitu ongizatearen estatua mantentzeko.

Lan-araubiderik ez egoteak —edo ia ez egoteak— berekin ekarri du prekarietate maila handieneko lanetako bat izatea, heterogeneotasun handikoa izatea lan-baldintzei dagokienez, gutxi baloratuta egotea eta definizio eskasa edukitzea

esparru sozialeko profesional bakoitzaren esku-hartzearen mugei dagokienez.

Sektore oso feminizatua da orobat, behin-behinekotasun tasa handikoa; soldatak, kasu askotan, batez besteko soldataren azpikoak dira, eta ratioak oso altuak. Arriskugarritasuna edo gauekotasuna bezalako baldintzek, berriz, aitorten urria dute.

Esparru sozialeko profesionalen parte handi batek hirugarren sektorean lan egiten du. Hirugarren sektoreak, oro har, administrazio publikoek itun edo lizitazio bidez eskainitako zerbitzuak ematen ditu, eta zerbitzu horiek 209/1991 Foru Dekretuan ezarritakoa gaindituz ematen badira ere, baldintza prekario eta eskasetan ematen dira, zerbitzuen kalitatea bermatzeko.

2015eko uztailaren 3ko EAOn argitara eman zen Ekintza eta esku-hartze sozialeko 2015etik 2017ra bitarteko Estatuko Hitzarmen Kolektiboa. Hartara, lehenengo aldiz onetsi da berariazko hitzarmen bat ekintza eta esku-hartze sozialeko jarduerak egitea jarduera nagusi duten enpresetan, elkarteetan, fundazioetan, zentroetan, entitateetan edo gisako erakundeetan aplikatu beharrekoa. Horietako gehienak titulatasun eta erantzukizun publikokoak dira, baina administrazioek hirugarren sektoreko entitateekin eta enpresa pribatuekin dute horien kudeaketa.

Zenbait erkidegok hitzarmen hori hobetzeko hautua egin dute, esparru sozialean egindako lanari balioa emanez.

Nafarroan aurtengo apirilean eratu zen patronalaren eta sindikatuen arteko negoziazio-mahaia. Orain arte, Nafarroako Gobernua ez da negoziazio-mahai horretan egon, baina bere babesa eta konpromisoa adierazi ditu hitzarmen horrek aurrera egin dezan.

209/1991 Foru Dekretu zaharkitua aldatzeko zirriborro bat ere prestatu da. Zirriborroaren presaltanen hasierako fasean gaudenez, komenigarria da azken emaitza arlo horretako eragileen arteko adostasunaren fruitua izatea.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Gizarte-erakunde eta -eragileekin jorra dezan 209/1991 Foru Dekretua aldatzeko egindako zirriborroa, eta gero lehenbailehen onets dezan.

– Sektoreko enpresen eta erakundeen eta sindikatuen arteko negoziazio-mahaian parte har dezan, Nafarroa osoan lan-baldintzak arautuko dituen esku-hartze sozialeko hitzarmen autonomiko bat taxutzeko.

– Nafarroaren 2020rako aurrekontuetan jaso ditzan egin beharreko aurrekontu-igoerak, hitzarmen berritik heldu diren soldata-igoerei aurre egiteko hitzarmen horrek ukitzen dituen kontratu edo itunetan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 22an

Foru parlamentariak: Nuria Medina Santos, Koldo Martínez Urioinabarrenetxea, Patricia Perales Hurtado, Ainhoa Aznárez Igarza eta Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lantalde misto bat sor dezan enpresa eta pertsona ekintzaileei beren jarduera ezartzeko eta garatzeko erraztasunak emanen dizkieten neurriak diseinatze aldera.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lantalde misto bat sor dezan enpresa eta pertsona ekintzaileei beren jarduera ezartzeko eta garatzeko erraztasunak emanen dizkieten neurriak diseinatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Garapen Ekonomiko eta Enpresari-leko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute,

Garapen Ekonomikorako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Ekonomiaren arloko araudia da zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko batek dauzkan tresnetako bat, guztien onura sustatzeko eta merkatuan norbanakoaren interesen aitzinean interes orokorra defendatzeko. Ekonomiaren eta administrazioaren arloko araudia helburu publikoek justifikatuta egon behar du. Esku-hartze publiko horrek, ordea, orekatua izan behar du; hartara, minimizatu egin behar da jarduera ekonomikoaren garapenean izan dezakeen inpaktu negatiboa, horien helburu legitimoak lortze aldera behar-beharrezkoa denaz harago. Hori bai, konponbidea ezin da izan neurririk gabeko desarautze bat, baizik eta efizientziaz arautzea; alegia, ahalik eta kosturik txikiena ezartzea jarduera ekonomikoari, halako moduan non interes orokorren babesarekin bateragarria izanen baita.

Jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren hobekuntza handi bat etor liteke enpresentzako kostu ez-emankorrak murriztu edo kentzetik; besteak beste, justifikatu gabeko gehiegizko burokraziak eragindakoak.

Hortaz, beharrezkoa da ingurune administratiboa hobetzea, alferreko trabarik eta oztoporik jarri gabe, prozedura zalu eta soilduekin, eta Administrazioak erantzun azkarrak emanda eragile ekonomikoari, ez dadin gal inbertsio-proiektu bakar bat

ere izapide burokratikoaren erruz. Burokrazia handiago batek ez du bermatzen interes orokorrak defendatzea eta enplegua sortzea.

Baina argi dago helburu hori bideragarriagoa dela baldin eta edozein enpresa-proiektu edo -jarduera dela eta egunero administrazio-izapidetzeari aurre egin behar izaten dioten erakunde profesionalen lankidetzak edo parte-hartzea ematen bada.

Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartutako eskumenen esparruan enpresa berriak sortu, enpresa-jarduera garatu eta sustatu eta enplegua sortzeko xedez, enpresei eta ekin-tzaileei babesa emanaz, behean sinatzen duten

talde parlamentarioek honako erabaki proposamen hau aurkezten dute:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lantalde misto bat sor dezan, parte hartu nahi duten toki entitateekin eta erakunde profesionalekin lankidetzan, Nafarroako Foru Komunitateko enpresa eta pertsona ekin-tzaileei beren jarduera ezartzeko eta garatzeko erraztasunak emanen dizkieten neurriak diseinatze aldera.

Iruñean, 2019ko azaroaren 27an

Foru parlamentariak: Ainhoa Unzu Garate, Mikel Asiain Torres, Ainhoa Aznárez Igarza eta Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 10/2011 Foru Legea gaurkotu dezan eta Nafarroako Gazteriari buruzko III. Plana ekarriko duen estrategia bat idatz dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 10/2011 Foru Legea gaurkotu dezan eta Nafarroako Gazteriari buruzko III. Plana ekarriko duen estrategia bat idatz dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 10/2011 Foru Legea gaurkotu dezan eta Nafarroako Gazteriari buruzko III. Plana ekarriko duen estrategia idatz dezan.

Nafarroako Gazteriaren Institutua jada errealitate bat da. Institutua beharrezkoa da Nafarroako Gobernu osoan gazteriari berriaz zuzendutako politikak zeharkakotasunez taxutzeko eta beharrezkoa da erakunde autonomo bat izateak ematen dion ekintza-ahalmena izan dezan.

Gazteriari buruzko politikak are beharrezkoagoak dira gaur egun. Merezki duen garrantzia eman behar zaio gaurkoa bezalako egoera batean, non gero eta agerikoagoa baita gazteek zer zailtasun bizi dituzten; esate baterako, enplegu eza edo enpleguaren prekaritasuna, edo familiarikiko mendekotasuna, emantzipatzea ezinezkoa zaielako.

Indartu egin beharra dago erakunde publikook gazteriaren arloan daukagun ardura, gure erkidegoko gazteei eskaini ahal izan diezazkiegun etorkizunean egin nahi dutena egin ahal izateko behar dituzten aukerak eta tresnak, gaur egun zer bizi duten ahaztu gabe eta gazteria bera kontuan hartuta neurri horiek taxutzerakoan, garatzerakoan, kontrolatzerakoan eta ebaluatzerakoan, eta bereziki kontuan hartuta gazteriaren arloko eragileak; adibidez, Nafarroako Gazteriaren Kontseilua eta foru erkidegoan dauden bestelako entitateak.

Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 10/2011 Foru Legea “azken urteotan gizartean izan diren aldaketa prozesuek ekarri dituzten erronka eta aukera berriei erantzuteko beharretik sortu da. Aldaketa horiek gazteak ukitzen dituzte nabarmenki, eta behar berri batzuk dituen gizarte ingurune bat eratu dute. Behar horiei zeharka eta koordinaturik heldu behar zaie orain”.

Testuingurua aldatu egin bada ere, legearen helburu nagusia gaur egungo gizartean ere balia daiteke, baina horretarako gazteriaren egungo errealitatera egokitu beharra dago.

Halaber, gazteriari buruzko planak eta estrategiak ere gaurkotu behar dira, gazteek zer beharri-
zan dituzten ikasiko bada.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 10/2011 Foru Legea egokitu, gaurkotu eta gara dezan, Nafarroako gazteen errealitate berrietara egokitzeko.

2. Gazteriari buruzko 2020tik 2024ra bitarteko estrategia taxutu dezan, Nafarroako gazteek egun dauzkaten beharrianak artikulatzeko.

3. Nafarroako Gazteriari buruzko III. Plana gara dezan. Planak zeharkakotasunez jasoko ditu Nafarroako gazteak zeharo garatzeko beharrezkoak diren neurriak.

4. Gazteekin lan egin dezan plan horiek taxutzeko; bereziki, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluarekin.

Foru parlamentariak: Carlos Mena Blasco, Javier Arakama Urriaga, Mikel Buil García eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Minbiziari aurre egiteko Arreta Plan Estrategiko bat taxutu dezan.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan Minbiziari aurre egiteko Arreta Plan Estrategiko bat taxutu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Minbizia da Nafarroan heriotza gehien eragiten duen arrazoia.

Bizi-itxaropenaren igoera, tratamendu berrien ondorioz biziraupena areagotzea, berealdiko

berrikuntza eta terapia aurreratuak, horiek osasun-kostuan duten inpaktu handia... horrek guztiak beharrezkoa egiten du minbiziaren estrategia lehentasuna izatea osasun-politikan.

Doitasunezko medikuntza, pazienteak erabaki partekatuen parte izatea eta osasun arloko emaitzetara bideratzea aukera bat dira erdigunea pertsonengan jartzen duten eredu-erantz hurbiltzeko, osasun arloko emaitzak hobetu eta patologia horri modu integral eta integratu batez ekiteko.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Gobernua premiatzen da sei hilabeteko epean gehienez ere Nafarroan Minbiziari aurre egiteko Arreta Plan Estrategiko bat taxutu dezan eragile profesionalen nahiz pazienteen ordezkarien laguntzarekin, zeinean hobekuntzak jorratuko baitira prebentzioaren, detekzio goiztiarraren, arretaren, zainketa aringarrien, ikerketaren eta praktika klinikoari aplikatutako medikuntza pertsonalizatuaren arloetan.

2. Espainiako Gobernua premiatzen da Minbiziaren Estrategia Nazional berria onetsi dezan, praktika klinikoari aplikatutako Minbiziaren Doitasunezko Medikuntza jasoko duena.

Iruñean, 2019ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat aurkez dezan gure erkidegoko hiltegieta telebista bidezko zirkuitu itxiak nahitaez daitezen.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS-AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Podemos-Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerria talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita foru lege proiektu bat aurkez dezan gure erkidegoko hiltegieta telebista bidezko zirkuitu itxiak nahitaez daitezen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zalantzarik gabe, elikagaien segurtasuna eta animalien ongizatea bezalako auziak kezka-iturri handiak dira kontsumitzailearentzat, eta leku gero eta handiago hartzen ari dira azken urteotako eztabaida juridikoan.

Eztabaida hori ez da mugatzen lagun egiteko animalien ongizatera, giza kontsumorako espezieen babesari eta ongizateari, espezie horietatik heldu diren produktuak prozesatzeko higiebalduak eta harakintza-industriako langileen prestakuntzari nahiz lan-baldintzei buruzkoa ere bai baita. Gizarteak elikagaien segurtasunari nahiz animalien ongizateari buruzko arauen edukian aurrerabidea egitea exigitzen duela ematen badu ere, askotan ikusten ari gara zailtasunak

daudela arloko araudi indarduna zuzen betetzen dela bermatuko duten neurri egokiak definitzeko.

Hortaz, eta herritarrek gero eta gehiago eskatzen dutelako jakitea kontsumitzen dituzten produktuek zer jatorri duten, sektorearekin lotutako interes-taldeek –harakintza-industriak, sindikatuek, albatari ofizialek, kontsumitzaileen elkarteek eta ekoizpenerako animalien ongizatearen alde lan egiten duten elkarteek– autonomia erkidegoko gobernuei eskatzen diete telebista-kameren bidezko zirkuitu itxiko sistemak ezar ditzaten beren lurraldeetako hiltegieta, kontrolatze aldera egiaz betetzen direla Kontseiluaren 2009ko irailaren 24ko 1099/2009 Erregelamenduan, hilketaren uean animaliak babesteari buruzkoan, animalien ongizatea dela-eta exigitzen diren gutxiengoak (gurean, Hilketaren uean animaliak babesteari buruzko alderdiak arautzen dituen urtarrilaren 24ko 37/2014 Errege Dekretuaren bidez garatu da Kontseiluaren erregelamendu hori).

Horrela taxutzen dira Equalia GKEak prestatutako legegintza-proposamenaren aurrekariak, Equaliak Foru Legebiltzarreko talde parlamentario honekin eta beste batzuekin partekatatu dituenak.

Zenbait autonomia erkidego lege proiektu hori jada lantzen hasi dira, eta parlamentu autonomikoa askotan serio ari dira eztabaidatzen proposamen hau.

Ekimen honekin bat egiten ari dira animaliak babesteko zenbait talde eta alderdi politiko ugari, bai eta bestelako entitate eta erakundeak ere; esate baterako, Industriako CCOO sindikatua, zeinak bat egin baitu Equalia GKEaren legegintza-proposamenarekin, Espainiako hiltegieta arian-arian bideozaintzako kamerak ezar daitezen, halako moduan non beren instalazioetako animalien ongizatearen estandarrak areagotuko baitira. Sindikatua eta irabazi-asmorik gabeko erakundea –zeinak kontsumo arduratsu bati buruzko kontzientzia pizteko eta elikagaien segurtasunari eta animalien babesari buruzko araudia betetzen dela bermatzeko neurriak bultzatzen baititu– lankidetzan estuan ari dira lanean harakintza-industria osoak egin dezan bat kanpainarekin.

Halaber, kontsumitzaileen zenbait elkarte garrantzitsuk uste dute egokia dela hiltegiatan bideozaintzako kamerak arian-arian instalatzeko lege bat taxutzea, oso-oso beharrezkoa ikusten dutelako gisa horretako araudi bat egon dadin, instalazio horietan animalien aurkako tratu txar gehiagorik egotea ekiditeko eta animaliei zor zaien tratuari dagokionez ezarritako protokolo guztiak behar bezala betetzen direla bermatzeko.

Bildutako irudiak biltegitratzeko epe bat ezartzearen alde ere agertu dira –Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoak ahalbidetzen duen gehieneko epea–, horrek asko lagunduko liekeelako ikuskatzaileei eta albaitariei beren lanean enpresen jardunbide txarrak detektatzeko. Hala-tan, neurri hori onetsiko balitz kontsumitzaileei gardentasun-froga bat emanen litzaieke, eta erabiltzaileek sektoreko enpresengan jarritako konfiantza areagotzen lagunduko luke.

Harakintza-industria ere neurri hori onestearen alde azaldu zen honako agiri honen bidez: ANICE-

ko Zuzendaritzak animalien ongizatearekiko konpromiso irmoa berretsi du, eta Administrazioari eskatu die egin beharreko legegintzako aldaketak egin ditzan hiltegiatan bideozaintzako kamerak ezartzea ziurtatzeko.

Sektoreko eragile guztien adostasuna, beraz, zabala eta fidagarria da.

Azaldutako guztiagatik, erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lege proiektu bat aurkez dezan, gure erkidegoko hiltegiatan telebista bidezko zirkuitu itxiak nahitaez instala daitezen, albaitari ofizialen zerbitzuen kontrol-eginkizunaren osagarri.

Iruñean, 2019ko azaroaren 26an

Foru parlamentariak: Javier Lecumberri Urabaien, Mikel Asiain Torres, Adolfo Araiz Flamarique, Ainhoa Aznárez Igarza eta Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Prozedura Kriminalaren Legearen 324. artikulua aplikatzen bertan behera utz dezan.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Prozedura Kriminalaren Legearen 324. artikulua aplikatzen bertan behera utz dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Urriaren 5eko 41/2005 Legea, justizia penala bizkortze aldera eta berme prozesalak sendotze aldera Prozedura Kriminalaren Legea aldatzen duena, 2015eko abenduaren 6an sartu zen indarrean. Legearen artikulua bakarraren seigarren apartatuaren bidez, Prozedura Kriminalaren Legearen 324. artikulua aldatu zen, prozesuen instrukzio-fasearen iraupena mugatzeko. Sei hilabeteko epe orokor bat ezarri zuen, bai eta salbuespenezko hemezortzi hilabeteko beste bat ere, berariaz konplexutat jotzen diren ikerketetarako. Salbuespen ugari dituen arau ustez orokor bat da, araubide juridiko korapilatsua duena, hainbestearinokoa non Estatuko fiskal nagusiak ere instrukzio-fasearen gehieneko epeei buruzko 5/2015 zirkularrean esaten baitu “itzalguneak” planteatzen dituela.

Beste behin ere, legegileak dio helburu jakin bat, txalogarria betiere, lortu nahi duela –xedapenaren aitzinsolasean formalki adierazten dena, alegia–, baina legea mundu errealean aplikatzean egiaz lortzen den emaitza oso bestelakoa da; oraingo honetan, gure herrialdeko justizia administrazioaren zerbitzu publikoa eta botere judizialaren lana zer inguruabarretan garatzen den ikusita.

Hala da, bai. Xedapenaren aitzinsolasaren arabera, instrukzio judizialerako muga bat ezartzearen helburu formala da lehenago aurreikusten zen hilabeteko epe eragingabea gainditzea –praktikan, epe hori ez zen inoiz ere errespetatzen–, eta horren ordean epe errealistagoak ezartzea –epaileen nahiz fiskalen azterlan estatistikoaren ondoriozkoak, ustez–. Praktikan, ordea, areagotu egiten da ziurgabetasun juridikoa eta nahi ez diren zigorgabetasun-guneak irekitzen dira. Orobat esaten da 41/2005 Legearen bidez egindako lege-erreformak erraz ezar daitezkeen hainbat neurri jasotzen dituela, behargabeko atzerapenak ekiditea ahalbidetzen dutenak eta aldean eskubideetan inolako murrizketarik eragiten ez dutenak.

Agian, garai hartako legegileak ez zekien lurralde nazional guztian instrukzioaz arduratzen diren epaitegi gehien-gehienetan behar baino baliabide material eta giza baliabide gutxiago zeuzkatela, nahiz eta gabezia hori behin eta berriro ageri den jasota Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Fiskaltzak urtero argitaratu eta Diputatuen Kongresura bidaltzen dituzten oroitidazkietan. 41/2005 Legeak berak ere aurreikusten du, xedapen gehigarri bakarrean aurreikusi ere, neurriek ezin izanzen dutela berekin ekarri zuzkidurak eta langileria gastuak handitzea.

Konstituzioaren 24.2 artikulua nahiz Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 6.1 artikulua ezartzen dute oinarrizko eskubidea dela bidegabeko atzerapenik gabeko prozesu bat izatea, eta eskubide hori ezin daiteke bermatu eta ez da bermatu behar Konstituzioaren 9.3 artikulua segurtasun juridikoari begira ezartzen dituen betekizunak aintzat hartzen ez dituen lege erreforma baten bidez, zeinean epe prozesal anitz ezartzen baitira, salbuespen askorekin eta luzapenatarako aukera ugariarekin, eta hori dena Ministerio Fiskalaren esku uzten da, eta ez ikerketaz arduratzen diren instrukzioko epaileen esku. Agerikoa da, beraz, erreformaren koherentzia eza.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak emandako irizpenaren arabera, instrukziorako gehiengo epea amaitzeak largespena baztertzen du, non eta ez den gertatzen Prozedura Kriminalaren Legearen 637. eta 641. artikuluetan aurreikusitako kausetako bat, eta horrek instrukzioaz arduratzen den organoa behartuko luke akusazio-aldia abia-

raztera, egitateak argitzeko beharrezkoak liratekeen ikerketa-diligentziak egiterik egon ez dela jakin arren. Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 5/2015 zirkularrak egiten duen interpretazioaren arabera, “epeaz kanpo agindutako diligentziei baliogabetasun-zehapena ezarriko zaie”.

Hortaz, ezarritako sistemak ez du eragozten “akusatuen aulkiaren zigorra” deiturikoa eta, are, bidea eman dezake Ministerio Fiskalak edonoren aurka egin ahal izate akusazioa, egitateen ikerketa burutu gabe. Beste aukera bat da largespena, eta horrek berekin leharke egitateen zigorgabetasuna –baita, ustez, Zigor Kodean jasotako larriaren ere–, horiek dira-eta ikertzen zailenak.

Epaileen eta fiskalen sei elkartek eskatu zuten legea indarrean sar ez zedin, eta jendaurrean ezagutarazitako agiri bateratu batean adierazi zuten erreforma “amaiera puntuko legea” zela zinez. Magistraturaren Elkargo Profesionalak ez zuen agiria sinatu, baina legea alda zedin eskatu eskatu zuen. 2.500 fiskaletatik, 1.000k baino gehiagok sinatu zuten gisa bereko gutun bat. Fiskaltzak adierazi zuen materialki ezinezkoa zela 650.000 kausa berrikustea epearen barruan –2016ko ekainaren 5era bitarte alegia–, legeak aurreikusten baitzuen indarrean sartzen zenean jada izapidetzen ari ziren prozedurei ere aplikatzea. Espainiako Abokatzaren Kontseilu Nagusiak ere eskatu zion bere garaian Justizia Ministerioari haiekin hitz egitea erreforma indarrean sartu aitzin.

Oraindik ere indarrean den eta aldiro adabatu den hemeretzigarren mendeko testuaren ordean Zigor Prozedurako Lege berri bat taxutzeko erronka nagusiari ziurgabetasun juridikoa eragiten duen konponbide partzial batekin erantzuten bazaio, berriro ere premiarik gabe aztoratuko da benetako babes judizialerako eskubidea, eta ez da bermatuko bidezko eta bidegabeko atzerapenik gabeko prozesu baterako eskubidea, zeina bai Konstituzioak bai Giza Eskubideen Europako Gutunak ere oinarrizko eskubidea dela ezartzen baitute.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du bertan behera utz dezan Prozedura Kriminalaren Legearen 324. artikulua aplikazioa. Hori ez da eragozpen izan urgentziaz abiaraz daitezkeen hura indargabetzeko edo aldatzeko lege proiektu bat aurkezteko beharrezkoak diren lanak, ekidite aldera instrukzioan dauden kausen largespena epea iragan delako soilik.

Iruñean, 2019ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Alzheimerraren Plan Nazionalaren aldeko adierazpen instituzionala.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Alzheimerraren nahiz bestelako dementzien aurkako 2019-2022 Plan Nazionalarekiko babesa eta konpromisoa adierazten du”. (10-19/DEC-00086).

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baititu talde parlamentarioek Eusko Legebiltzarrean izendatutako mandatariek aurkeztutako dokumentuak, zeinetan Nafarroa aipatzen baita, Konstituzioak ezarritakoaz harago, euskal autogobernua gaurkotzeko ponentzian.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten ditu talde parlamentarioek Eusko Legebiltzarrean izendatutako mandatariek aurkeztutako dokumentuak, zeinetan Nafarroa aipatzen baita, Konstituzioak ezarritakoaz harago, euskal autogobernua gaurkotzeko ponentzian.

2. Nafarroako Parlamentuak Eusko Legebiltzarrari exigitzen dio erabat errespeta dezan Foruaren Hobekuntzatik eta gure Konstituziotik heldu den errealitate instituzionala, bai eta foru erkidego honen lurralde-errealitatea ere, gehiengo

sozial handi-handi batek berretsia demokrazian egindako hauteskunde guztietan.

3. Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Eusko Legebiltzarrari eta bere kudeaketa-organoei eskatzen die hartu beharreko akordioak har ditzaten aurkeztutako testu horiek baliorik gabe uzte aldera; izan ere, existitzen ez den errealitate politiko eta instituzional bat hartzen dute abiaburu, eta, edonola ere, ez dagokie ez parlamentu horri ez parlamentu horrek ordezkatzeko dituen herrialdeei Nafarroako Foru Komunitateari buruzko erabakirik hartzea”. (10-19/DEC-00087).

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak zeharo errefusatzeko baitu gorroto-diskurtso oro, eta berariaz errefusatzeko ditu bakarrik dauden neska-mutiko edo nerabe migratzaileak kriminalizatzea bilatzen duten diskurtso guztiak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak zeharo errefusatzeko du gorroto-diskurtso oro, eta berariaz errefusatzeko ditu bakarrik dauden neska-mutiko edo nerabe migratzaileak kriminalizatzea bilatzen duten diskurtso guztiak.

2. Nafarroako Parlamentuaren eta legebiltzarra osatzen duten talde guztien konpromisoa da inolaz ere ez babestea gure gizarteko edozein kolektiborekiko gorroto eta xenofobia diskurtsoa gizartean edo erakundeetan sartzea bilatzen duen talde politiko edo sozialik.

3. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du bere konpromisoa adingabe guztien eskubideak

bermatzen dituzten Nafarroako eta Espainiako legegikiko, nazioarteko tratatu nahiz zuzentarauekiko... adingabeen jatorria zein ere den.

4. Nafarroako Parlamentuak zeharo gaitzesten du Voxek bakarrik dauden adingabe migratzaileen Andaluziako zentro batean egindako eskratzea nahiz Madrilén granada batekin oraintsu egindako erasoak, zeinen egileak oraindik ere ez baitira identifikatu.

5. Nafarroako Parlamentuak dio beharrezkoa dela toki entitate guztiak aktiboki engaiatzea legeria bete dadin eta bakarrik dauden adingabe migratzaileentzako babes eta arreta egokia bermatzea”. (10-19/DEC-00088).

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aldeztu egiten baitu bere Konstituzioan ezarritako egoeretara mugatzea Guatemalako Errepublikan ezarritako Sitio Egoera.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Kontuan izanda Sitio Egoerak herritarren oinarritzko eskubideei begira dakartzan murrizketa larriak, Nafarroako Parlamentuak aldeztu du salbuespenezko neurri hori hertsiki mugatzea, Guatemalako Konstituzioak ezartzen duen moduan, “lurraldearen inbasioa, bakearen nahasmendu larria, Estatuaren segurtasunaren aurkako jardura edo hondamendi publikoa” egiaz ekar ditzaketeko egoeretara.

2. Nafarroako Parlamentuak Sitio Egoeraren deklarazioa eragin zuten egitateak independentziaz eta azkar ikertzea bermatuko duen instrukzio baten aldeko hautua egiten du, bai eta giza eskubideak aldeztu dituzten pertsonen aurkako era-

soak independentziaz eta azkar ikertzearen alde ere.

3. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten du Giza Eskubideen Prokuradoretzak eta Giza Eskubideen aldeko Goi-komisarioaren Bulegoak ukitutako udalerrietan giza eskubideen egoera zorrotz monitorizatzea eta kontrolatzea babestu eta erraztu dezala Guatemalako Errepublikako Gobernuak, Sitio Egoerak indarrean dirauen bitartean.

4. Nafarroako Parlamentuak giza eskubideen defentsa lohitu eta zailduko duen diskurtsoak eta ekimenak ez sustatzearen aldeko hautua egiten du, Giza Eskubideen Prokuradoretzak eta Nazio Batuen Erakundeak Guatemalan duen Giza Eskubideen aldeko Goi-komisarioaren Bulegoak egingadako barne.

5. Nafarroako Parlamentuak aintzatetsi egiten du giza eskubideen aldeko erakundeek egindako lana, bai eta giza eskubideen alde lan egiten duten pertsona guztiena ere, mehatxurik, difamazioz edo erasorik pairatu gabe egin beharko bailukete euren lana; Guatemalako gobernuak, hortaz, bere konpromisoa bete behar du, hura babesteko politika publiko bat garatzekoa.

6. Nafarroako Parlamentuak Guatemalako Errepublikako lehendakari Jimmy Morales Cabrera jaunari, Guatemalako Errepublikaren Espainiako enbaxadoreari eta Guatemalako Errepublikako Kongresuko lehendakari Álvaro Arzú Escobar jaunari igorriko die adierazpen hau". (10-19/DEC-00089).

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu egiten baitu estatuan nahiz Europan egiten den migrazio politika elkartasunean eta giza eskubideekiko errespetuan oinarrituta egitea.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, ondo adierazpena onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du operazio humanitario bat abiaraz dadin Mediterraneoan, gerratik eta indarkeriatik ihesi itsasoko hainbat bide erabiltzen dituzten pertsonen oinarritzko beharizanean erantzunen diena.

2. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du hirugarren herrialdeekiko laguntzarako baldintza izan dadin beren erakundeak egiaz demokratizatzea, halako moduan non giza eskubideak betetzen dituztela bermatuko baita.

3. Nafarroako Parlamentuak kasuko erakundeak (Espainiako Gobernua eta Europar Batasuna) animatu nahi ditu berma dezaten GKE-en itsasontziek eraginkortasun handiagoz egin ahal izatea lan humanitarioa, bizirik dirauten pertsonen sufrikarioa gutxituta.

4. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten du estatuan nahiz Europan egiten den migrazio politika elkartasunean eta giza eskubideekiko errespetuan oinarrituta egitea". (10-19/DEC-00090).

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Corellan, Aita Pasiotarren antzinako egoitzan, CLECE enpresak zahar-etxe bat eraikitzeari buruzkoa.*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, Corellan, Aita Pasiotarren antzinako egoitzan, CLECE enpresak zahar-etxe bat eraikitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1. Eskubide Sozietateko Departamentuak ba al daki ea CLECE enpresak zahar-etxe bat eraiki nahi duen Corellan aita pasiotarrena zen egoitzan? Hala baldin bada, noiztik dauka horren berri?

2. Nafarroako Gobernuak ba al daki zahar-etxea noizko eraikiko den?

3. Nafarroako Gobernuak ba al du inolako konpromiso formal edo ahozkorik obrak bukatzen direnean zahar-etxe horretan tokiak ituntzeko?

Iruñean, 2019ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, landa ingurunean zahartzea dela-eta arretarako eredu pilotu bat diseinatzeari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, landa ingurunean zahartzea dela-eta arretarako eredu pilotu bat diseinatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

1. Errealitate Sozialaren Behatokiak noizko bukatuko du landa ingurunean zahartzea dela-eta Alloko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin eta ADACENekin lankidetzan egin beharreko arretarako eredu pilotuaren diseinua?

2. Diseinu horrek kosturik izanen al du? Hala baldin bada, zenbatekoa izanen da eta zer partidarekin finantzatuko da?

Iruñean, 2019ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Nafarroako lurraldean “txerri-basurdea” deitutakoak duen egoerari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako lurraldean “txerri-basurdea” deitutakoak duen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako lurraldean “txerri-basurdea” deitutakoak duen egoera dela-eta, parlamentari naizen honek informazio gaurkotua jaso nahi dut horren ezarpenaren hedapenari eta ale-kopuruari buruz.

Halaber jakin nahi dut ea Departamentuak zer neurri ezarri dituen horri aurre egiteko.

Iruñean, 2019ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Mahaiaren 2018ko abenduaren 19ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak erabaki bat aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2019ko abenduaren 4koa, non eskatzen baitu 2019ko abenduaren 23an, 24an, 26an, 27an eta 30ean goizeko lanaldia ezartzea.

Kontuan izanik aipatu lan-asteetan ez dagoela aurreikusita arratsaldeko parlamentu-jarduerarik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 37. artikuluekin bat, hauxe ERABAKI DUGU:

1. Mahaiaren 2018ko abenduaren 19ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia aldatzea;

halatan, 2019ko abenduaren 23an, 24an, 26an, 27an eta 30ean lanaldia goizekoa izanen da, betiere zerbitzuen beharriaz horretarako bidea ematen badute.

2. Aldatzea Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2018ko abenduaren 19ko erabakiaren bidez onetsitakoa; halatan, 2019ko abenduaren 23an, 24an, 26an, 27an eta 30ean 09:00etatik 14:30era bitarte egonen da zabalik.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2019ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias